


Euskal AEko I+Gko gastua %10,2 handitu da 2006an

Gastu hori BPGren %1,47 da eta Espainiako batez bestekoaren (%1,20) gainetik dago, baina 27-Europar Batasunekoaren (%1,84) azpitik kokatu da.

2006. urtean, Euskal AEn guztira 908 milioi euro inbertitu ziren ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %10,2 gehiago, Eustatek landu dituen datuen arabera.

Euskal BPGren hazkunde nominal handiengatik, egonkor iraun du BPGren gaineko I+Gko gastuak 2000tik 2005era, baina 2006an hiru hamarren hazi eta BPGren %1,47ra joan da Horrela, txikitu egin da 27-Europar Batasuneko batez bestekoarekiko (%1,84) tarte; azken hau egonkortu egin da azken urteetan, inoiz atzera ere egin duelarik. Gastu hori ere Espainiako batez bestekoaren (%1,20) gainetik dago.

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGrekiko (%).



Iturria: Euskal AE: EUSTAT. INE(Espainia) eta EUROSTAT (Europar Batasuna)

Egiaztatu da erlazio positiboa dagoela biztanleko BPGren eta I+Gra bideratutako BPGren ehunekoaren artean. Herrialde aberatsenak egiten dute I+Gko inbertsiorik handiena, hau da, euren BPGren %2,5 gainditzeko dutenak: Suedia, Finlandia, Japonia, Suitza, Islandia, AEB eta Alemania. Bitarteko ahalegina, hots, BPGren %1,5en eta %2,5en artekoa egiten dutenen artean, Austria,

Danimarka, Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Herbehereak, Eslovenia, Luxenburgo, Txekiar Errepublikak eta Norvegia daude. Inbertsio baxuenak, azkenik, Estonian (%1,41), Irlandan (%1,32), Espainian (%1,20), Italian (%1,10), Hungarian (%1,00), Kroazian (%0,87), Portugalen (%0,81), Grezian (%0,63) eta Polonian (%0,57) gertatzen dira.

Euskal AEn egindako I+Gko gastuaren %79,5 enpresa-sektorean egikaritu zen

Exekuzio-sektoreei dagokienez, enpresek I+Gko gastuaren %79,5 kontsumitu zuten; %17,2 unibertsitate-ikerketara bideratu zen, eta gainerako %3,3 administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok gauzatu zuten.

Beraz, enpresen sektoreak egiten du, Euskal AEn, konparatiboki, ikerketa ahaleginik handiena. Arlo horretan ere alde handia dago estatuko emaitzen aldean: 2006. urtean, enpresek I+Gko gastuaren %55,6 besterik ez zuten egikaritu, goi-mailako irakaskuntzak %27,7 eta herri-administrazioak gainerako %16,6.

Industri enpresetan zentratuz, nabarmentzekoak dira ondoko jarduera adarrak: garraio materiala, metalezko artikulua eta makineria, hiruren artean enpresen sektoreko barne gastuaren %20 egikaritu zutelarik. Zerbitzu-enpresen aldetik, I+Gko zerbitzuetakoak dira baliabiderik gehien bideratzen dituztenak, eta guztien artean enpresen barne gastuaren %38ra iritsi ziren.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 555 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %61; finantzaketa pribatua %35era iritsi zen, eta funtsen %3 atzerrian atzeman ziren. Euskal AE finantzaketa pribatu handieneko herrialdeen artean kokatzen da oraindik ere, Estatu Batuen, Suediaren eta Alemaniaren mailan.

1. taula: I+Gko adierazleak

	Euskal AE		Espainia	Europar Batasuna
	2005	2006	2006	2005
I+Gko gastuak, finantzaketaren arabera				
Enpresak	63,8	61,2	47,1	54,5
Administrazioa	32,4	35,4	42,4	34,8
Bestelako iturriak	0,3	0,3	4,6	2,2
Atzerria	3,5	3,1	5,9	8,5
I+Gko gastuak, egikaritze-sektorearen arabera (%)				
Enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak	79,4	79,5	55,7	64,5
Administrazioa	3,4	3,3	16,6	13,3
Goi-mailako ikasketak	17,2	17,2	27,7	22,2
I+Gra dedikatutako DOBko (*) langileak				
Langileak guztira	12.506	13.065	188.978	2.040.667
Ikertzaileak	7.820	8.145	115.798	1.217.524

(*) DOE: dedikazio osoko baliokidetza

Iturria: Euskal AE: EUSTAT. Espainia: INE- Europar Batasuna: EUROSTAT

Euskal AEn dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn lanean aritu ziren langileak 13.065 izan ziren, 2005ean baino %4,5 gehiago. Horietatik %62, hau da, 8.145, ikertzaileak ziren. Euskal AEko I+Gk

biztanleria landunaren milako 13,2 hartu zuen (Estatuan milako 9,6) eta ikertzaileak aldiz, milako 8,3 izan ziren (Estatuan milako 5,9).

Emakumeen presentzia hirukoiztu egin da azken hamarkadan

I+Gko jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak herri-administrazioetan eta goi-mailako irakaskuntzan gertatzen dira, %47 eta %45 baitira, hurrenez hurren. Enpresetan berriz, %27 dira emakumeak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp